

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Martina Agirre Zuriarrain

*Abaltzisketa,
Gipuzkoa (1930)*

Aurkibidea



Biografia



1930ean jaio zen Abaltzisketako Sarobebekoa baserrian. Aita Bedaion hazia eta ama Sarobe bertakoa zituen, eta bderatzi anai-arrebako familia zuen. Abaltzisketako eskolan bertan ikasi zuen. Usurbilen bizitzen egon zen denboraldi labur batez, eta etxera bueltatzean Alegian hasi zen neskame lanetan. Bizimodu gogorra pasa izan du etxean eta gosea zer den ezagututakoa da. 17 urterekin Ordiziako Olano tabernan hasi zen zerbitzari eta hantxe ezagutu zuen gero senarra izango zuena, Iñaki Ormazabal. Elkarriketa elkarrekin egin zitzaaien biei.

Zintak

ABL-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-05-28
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Abaltzisketako Sarobe baserrian jaioa

- **Erref:** ABL-002/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Abaltzisketako Sarobebehekoa baserrian jaio zen 1930ean eta haurtzaroa bertan pasa zuen 10 urtera arte, gaixo zuen ahizparen zaintzen. Bederatzi anai-arreba zituen. Ama Sarobe bertakoa zen eta aita nafarra, umezurtza.</p>

2. Kaletarrek baserritarrei barre egiten zieten

- **Erref:** ABL-002/003
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:10:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Abaltzisketako eskolan ikasi zuen 10 urterekin hasita. Asko sufritu zuen kaletarrek barre egiten baitzieten baserritarrei. Izebak Usurbilera eraman zuen bizitzera eta hango eskolan ibili zen gero.

3. Alegian neskame eta Ordizian zerbitzari

- **Erref:** ABL-002/004
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Lanbideak » Neskameak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Jaunartze handia Usurbilen egin zuen. 14-15 urtera arte bertan bizi izan zen eta ondoren etxera bueltatu eta neskame joan zen Alegiako etxe batera. Diru gutxi irabazten zuela-eta amak etxera bueltatzeko eskatu zion 17 urterekin. Ordua, Olano tabernan hasi zen zerbitzari lanetan.</p>

4. Tabernako giroa

- **Erref:** ABL-002/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Jende ugari ibiltzen zen tabernan, gizonezkoak bakarrik. Kartetan jokoan aritzen zen jendea eta meriendak egiten zituzten. Jende diruduna biltzen zen egunero eta asteazkenetan azokara hurbiltzen zen jendea. Goizaldeko ordu biak ingurura arte zabalik egoten zen taberna. Blusa beltza eta gona erabili ohi zuten, mantal urdinarekin.</p>

5. Nobiotako kontuak

- **Erref:** ABL-002/006
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Senargaiarekin hasi zeneko kontuak kontatzen dituzte senarrak eta biek. 3 urtean ibili ziren elkarrekin eta gero Zaldibiara joan zen anai-arrebak zaintzera. Josten ikasten ibili zen Martinarekin Zaldibian. Senargaia bizikletan joaten zitzaion. Senarraren aitari arropak egiten zizkion.

6. Esnezaleari behi-esnea saltzen zioten

- **Erref:** ABL-002/008
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:19:18. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Abaltzisketako baserrian esne-behiak izaten zituzten. Oso bizimodu pobrea zuten. Esnea esnezaleari saltzen zieten. Bi anaia gerrara joanda frontean eta aita gaixo zituen eta inguruko ezagunek asko laguntzen zieten.

7. Ospitalera gurdi edo taxian joaten ziren

- **Erref:** ABL-002/009
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:21:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Nor bait gaixotuz gero taxian edo gurdian joaten ziren ospitalera. Aita hil zenekoa kontatzen du.</p>

8. Arropak garbitzera erre kara

- **Erref:** ABL-002/011
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argia txikia zela ezagutu zuen etxean, kinkan olio egiten zuten. Ez zuten urik, kilometro inguruan joanda zuten iturria. Arropak garbitzera anaiak erreka ondoan jarri zuen lekura joaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

9. Frontean zeuden anaien gutunak bizilagunak irakurtzen zizkieten

- **Erref:** ABL-002/012
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Amak ez zekien irakurtzen eta auzotar batek irakurtzen zizkien frontean zeuden anaien gutunak. Bizimodu zaila pasa zuten eta bizipen haiek azaltzen ditu.

10. Azokara astoz eta postariaren gurdian joaten zen ama

- **Erref:** ABL-002/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:28:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Martinaren ama astoz Zaldibiara eta handik postariaren gurdian joaten zen Ordiziako azokara arrautzak saltzera. Arraina, olio eta beharrezko gauza justuak erosten zituen amak.</p>

11. Txerria hildakoan auzoan banatzeko ohitura

- **Erref:** ABL-002/014
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:28:04. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoaren arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Urtean txerri bat hil eta txorizo eta odolkiak egiten zituen Martinaren amak eta mantentzeko olio eta gatz-kutxetan gordetzen zituzten. Piper-hautsa ematen zioten haragiari eulirik ez gerturatzeko eta kontserbatzeko. Txerria hildakoan auzoko etxeetara odolkiak eramatea ohitura zen eta festa nola egiten zuten azaltzen du.</p>

12. Nafarroatik patataren estraperloan gauez

- **Erref:** ABL-002/016
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:32:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Baratzeko lanetan aritzen ziren, baina bizitzeko justukoa lortzen zuten. Zaldibiako errotara eramaten zuten irina gero ogia egiteko. Gauez estraperloa egiten zen; Nafarroatik patata ekartzen zen, besteak beste.</p>

13. Azokako postuak lurrian jartzen zituzten

- **Erref:** ABL-002/018
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:33:27. **Bukatu:** 00:36:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

<p>Terreno pixka bat bazuten eta fruta-arbolak zituzten. Azokako postuak lurrian jartzen zituzten. Inguruko herrietakoak izaten ziren saltzaileak. Ganadu ugari izaten zen eta kale bakoitzak ganadu izen bat hartzen zuen bertan saltzen zenaren arabera. Behia zezenari botatzera joan eta gertatu zitzairen pasadizoa kontatzen du.</p>

14. Abaltzisketako jaiak eta Larraizko erromeria

- **Erref:** ABL-002/019
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:38:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Etiketetik Abaltzisketara edo Zaldibiara antzera tardatzen zuten. Abaltzisketako San Juan jaiak. Larraizko erromeria. Dantza lotua debekatua zenekoa kontatzen du. Erromeria ilunarekin batera amaitzen zen.

15. Josten ikasten Zaldibian

- **Erref:** ABL-002/021
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:40:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Ezkondu aurretik Zaldibian ibili zen josten ikasten eta bitartean hiru anaiei etxeko lanetan laguntzen zien.

16. Ordiziako baserri eta lantegiak

- **Erref:** ABL-002/022
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:40:16. **Bukatu:** 00:42:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Ordiziako baserri eta lantegiak izendatzen dituzte. Beasaingo CAF lantegiak kanpotar ugari ekarri zuen Ordiziara eta Beasainera.

17. Karlismo garaiko kontuak

- **Erref:** ABL-002/023
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:42:22. **Bukatu:** 00:44:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Aitaren karlismo garaiko kontuak kontatzen dituzte.

18. Ordiziako Etxezarreta zinean aita pelikulak jartzen

- **Erref:** ABL-002/024
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:44:53. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Ordizian Etxezarreta zinea zegoen, Legorretako paper-fabrikako nagusiak egina. Iñakiren aitak botatzen zituen pelikulak zinean eta Iñaki ordaindu gabe sartzen zen. Martinaren izebak antzerkian parte nola hartu zuen azaltzen du.

19. Lizarrustira estraperlora joandakoa

- **Erref:** ABL-002/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:46:35. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Patataren estraperloa bizikletan egiten zuten Lizarrustiraino joanda. Aitak estraperloan egindako pasadizoak kontatzen ditu Iñakik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com